

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Erramun Barreix

*Urdiñarbe,
Zuberoa (1924)*

Aurkibidea



Biografia



Muskildin sortua (Naphal aldean, Muskildiko partean), Kleinategia etxean. Aita Joanes Barreix zen, Urdiñarbe herriko Sallaberrenborda etxekoa; zorrek etxea salarazi zieten. Lehen Mundu Gerran hartu zuen parte. Ama Naphalen sortua zen, Bordagai etxean. Etxezain ziren Kleinategian, eta 1930ean Urdiñarbeko Erregia etxera joan ziren. Aitak etxaldean lan egiten zuen, bai eta kanpoan, jurnalean. Hamabi senidetan gazteenetakoa zen Erramun, hamargarrena. Sei seme eta sei alaba ziren. Haur zelarrik, begi bat galdu zuen istripuz. Jaunartzea egindakoa, eskola utzi eta arreba baten etxera joan zen mutil. Etxaldera itzuli zen gero, eta etxean lan egiteaz gainera baso lanetan eta bide arraberritzen ibili zen inguruetan; anaia bat eskalapuñeo zen ofizioz. Erramunen hiru anaik II. Mundu Gerlan parte hartu zuten. 1952an Lurdes (Lourdes) herrira joaten hasi zen, sasoinaren egitera (Moderne ostatuan baxera egiten eta "brozür" bezala). 1954an Lurdes ondoko jauregi batean lana aurkitu zuen guarda pribatu bezala. Garaibiko [Luisa Casetekin](#) ezkondu zen bertara, eta bost haur izan zituzten. 1969an Garaibira joan ziren bizitzera; han ostatu bat atxiki zuten, eta Erramunek Mauleko fabrika batean lan egin zuen. Emaztearekin batera elkarrizketatu dugu.

Zintak

URB-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Camus Etchecopar, Argitxu
- **Data:** 2014-12-13
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

URB-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Camus Etchecopar, Argitxu
- **Data:** 2014-12-13
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com